

Patrick • Portugal-Alemania
Gonçalo Waddington (zuzendaria, gidoilaria)
Alba Baptista, Hugo Fernandes, Carla Maciel eta Teresa Sobral (aktoreak)
Luis Urbano (ekoizlea)

Waddington: “Filmak moraltasunaren inguruko eztabaida proposatzen du”

Gonçalo Waddington eta filmeko lantaldea proiekzioaren osteko argazki-saioan.

MONTSE CASTILLO

SERGIO BASURKO

Patrick, hogei urteko gaztea, Parisen bizi da bera baino helduagoa den gizon batekin. Etxean egingo duen festa batean Polizia agertuko da, eta atxilotu egingo dute drogak izateagatik eta neska batekin bortitz ari delako jokatzen. Komisarian, baina, ikusleak jakingo du Patrick zortzi urte zituela bahitu zutela, eta urteak egin zituela desagertuta. Hortik aurrera, amarekin eta senide gertuenekoekin –izeba eta lehengusina bat– izango duen harreman hotz eta gatazkatsuak ardaztuko du filma.

Prentsaurrekoan, Gonçalo Waddington zuzendariak segituan hartu du hitza filmeko alderdi moralari heltzeko. Bere aburuz, Patricken pertsonaiak badaki ongiaren eta gaizkiaren artean desberdintzen, baina traumaren ondorioz haren pertzeptzioa ohizkotik oso bestelakoa da. “Pelikulak ikusleari auzi moralak sortu badizkio, primeran, lortu dut nire helburua; ez dut lezio moralik eman nahi, bai ordea jendeak proposatzen dudan ezbai moralean sakontzea”, esan du.

Protagonista oinazetuaren amarena egiten duen Teresa Sobralek adierazi duenez, “Patrickek munstro bihurtu dela uste du, ongia eta gaizkia bereizten ez dituen pertsona. Barrutik suntsituta sentitzen da, eta batzuetan pentsatzen du hobe zuela hilda balego”.

Zuzendariak lehen planoak baliatu ditu ikusleak pertsonaiarengana hurbiltzeko eta haren buruan sartzen saiatzeko. “Horixe planifikatu nuen gidoia idazterakoan. Zerbait berariaz erakusten duzunean, erreakzioa da garrantzitsuena. Protagonistak ez du adimen emozional nahikorik zer gertatu zitzaion azaltzeko”.

Pertsonaia eraikitzeari buruz xehetasun guztiak behar bezala prestatu zituztela esan du Hugo Fernandes gazteak. “Hainbat aldiz joan nintzen Portugalera lantaldea ezagutzera, eta filmaketa hasterako erabat eroso sentitu nintzen gainerako aktoreekin. Horrez gain, Gonçalo aktorea ere badenez, ongi daki aktoreak nola gustura sentiarazi”. Waddingtonek gaineratu du frantsesa eta portugaldarra ongi zekizkien norbait aurkitu nahi zuela eta Fernandesekin topo egiterakoan “zaputz samarra zela konturatu nintzen, ez zidan zuzenean begietara begiratzen. Urduri zegoelako zen, baina begiratzeko modu hori zen, hain zuzen ere, bila ari nintzena”.

Carla Macielek (Patricken izeba filmean) gogoratu duenez, filmatzen hasi aurretik egonaldi artistiko bat egin zuten pertsonaiei buruz hitz egiteko, “horien moraltasunari buruz batik bat”. Sen horretan gaineratu du solasaldi horietan pertsonaien iraganak eraiki zituztela, filmatzerakoan “suntsitutako nortasunak berreraikitzeko ahaleginean”.

Patrick, victim and monster

Child abuse usually leads to serious emotional problems that, if not treated properly, leave sequels that are difficult to cope with. This is what happens to the main character in Gonçalo Waddington’s film. In the director’s opinion, “Patrick does have an idea of what is right and wrong, but it’s different for him because of the trauma that he suffered. If my film makes the audience reflect on moral issues, it means I have achieved what I aimed for. I don’t want to give a moral lesson, but I do want people to think about moral issues.”

According to Teresa Sobral (who plays Patrick’s mother), “he thinks that he has turned into a monster; someone who can’t tell the difference between good and evil. It’s difficult for him to handle this, because they thought that he was dead and he comes back transformed into someone who is utterly shattered inside.”

As for the search for the actor and the construction of the character, Waddington pointed out that they wanted to try and find someone who was fluent in French and Portuguese, and that when he came across Fernandes, “I realized that he was very aloof, he didn’t look me straight in the eyes. It was just because he was nervous, but the way that he looked at people was just what I was after.”